



I g e l d o k o



# ORRI INFORMATIBOA




Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea - Kristobal Balenziaga kalea 110 • 313030 • IGELDO

2001eko ekaina

## 36 etxebizitza kooperatibarentzat

Igeldoko etxebizitzaren afera bideratzekotan dagoela dirudi. Hasierako birpartzelazio proiektua atzera bota behar izan du Donostiako Udalak eta bigarrena egin du jada. Egun gutxi barru jasoko dute lurjabeek honi buruzko informazioa, baina dagoeneko Jorge Letamendia hirigintza zinegotziak aurreratu du Lizardi kooperatibak 36 babes ofizialetarako etxebizitza eskuratu dituela. Gainerako hamabiak udalaren menpe gertatu dira eta donostiar orok parte hartu ahal izango du etxebizitza horien



zozketan. Ez zen honako hau, dena den, Udalaren hasierako asmoa. Bigarren birpartzelazioaren ostean, Udalak 24 etxebizitza bereganatzeko asmoa azaldu zuen eta 24 besterik ez zituen utzi

nahi Igeldoko kooperatibaren esku. Asmohorien berri izan bezain pronto, Lizardi kooperatibak eta Herri Kontseiluak bilera eskatu zuten Donostiako Udal ordezkariekin, aurretik adostutakoa errespeta

zezaten: Donostiako Udalak 12 etxebizitza besterik ez zituela izango alegia. Bigarren birpartzelazioaren ostean, lurjabe pribatu guztiek etxebizitza pribatuak eskuratzeko eskubidea izango dute eta babes ofizialetarako Udala eta Lizardi kooperatibarentzat izango dira. Aldaketa hau alegazioen ostean eman da VPO eta etxebizitza libreen arteko proportzioak aldatu egin direlako: Lehen: Libre 1-VPOko 2 Orain: Libre 1-VPOko 4




## Festetan frontoirik gabe

Ez da posible izan. Frontoiko lanak buka tu gabe daude oraindik eta jaiak gainean ditugu.

Ez da batere harritzekoa azken eguntan lanak geldirik egon direla ikusita. Aurrezfabrikatutako harmailen zain egon dira egun hauetan, hauek ekarri eta jarri arte ezin delako frontoia itxi.

### Egindako lanak

Frontoia ixten hasi aurretik, aurreko hormaren atzealdetik sartzen zen uraren arazoa konpondu da eta baita kanteila ere. Bestalde, aurreko hormaren ondoko pareta erori egin zenez, plataforma antzeko bat jarri da



horma eusteko. Bestalde lan handia egin da harmailen azpialdea libre uzteko: lurra kendu da eta biltegi baterako lekua utzi da.

### Zoru berria



Zorua nahikoa ondatu denez, Udalak hau berritzea onartu du. Bestalde ezkerreko horma margotu egin-

go da eta argiak pizteko eta itzaltzeko aukera Igeldon izango da.

Azkenean frontoia itxi egin beharko da. Gogoratu behar da Lizardi aldetik itxitura finkoa bi metro térdi-tik gora egingo dela, hortik behera ireki eta ixten diren atea jarriko baitira.

### Estalia baino txikia

Frontoia txikia geratuko da, luzeraz batez ere. Gainera zabalean lehen baino tarte gutxiago geratuko da harmailetaraino, aurrealdean batez ere. Frontoia zerbait estutzea planteatu dute zenbaitek, baina ez da horren gaineko erabakirik hartu oraindik.



Ezkerrean harmailak ikus daitezke. Hauen azpialdea biltegi gisa erabili ahal izango da. Eskuineko argazkian plazako komunetan egiten ari diren lanak ikus daitezke: aldagelak, dutxak, komunak eta biltegi txiki bat izango dira bertan.




## IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA

### Itsas Aurren hobekuntza ugari

Maiatzaren 18tik martxan da Itsas Aurreko sukaldea eta jangela. Edozein igeldotarrak erabili dezake leku hau bazkariak edo afariak antolatzeko. Eskiera egiteko 943 313030 telefonora deitu beharra dago aldezturik.

Bestalde, beste zenbait erosketa egin dira kultur etxea ekipatzen hasteko: bulegorako artxibategiak eta ordenagailu berria erosi dira, liburutegirako bideoa eta telebista erosi dira, altzari bat, hiru mahai eta liburuak jasotzeko zenbait apal.

Areto nagusiko txoko batean telebistarentzako apal bat jarri da eta horrezaz gain diaporamak



eskaintzeko pantaila handia erosi da.

Piskanaka baldin bada ere, Itsas Aurre herri-tarren beharretara egokitzen ari da eta sukaldeak aspaldiko eskaera bati erantzungo dio.

### Udaleku irekiak uztailean

Uztailaren 4tik 30era, goizeko 09.00etatik 13.00etara, udaleku irekiak izango dira. Lau monitore arituko dira haurrekin egunero lanean eta iharduera desberdinak egingo dituzte: irteerak, tailerrak, jolas egunak, kultura desberdinekin lotutako egun bereziak eta bideo ikuskizunak. Zenbait ibilaldi oraindik zehazteko dauden arren, egitaraua nahikoa ondo zehaztuta dute antolatzaileek. Eguraldi txarrarekin Itsas Aurren geratuko dira. Haur bakoitzak 10.000 pezetako kuota ordaindu behar du.

### Kale izendegia ugaritzen

Igeldoko urbanizazio proiektua erakusgai dago udaletxean, baina dagoeneko erabakita daude herriaren azpialdetik eraikiko den saihesbidearen izena eta baita Lizardi atzealdean egingo den plazarena ere. Errepide berriak Itsas Alde ize-na hartuko du eta frontoiaren atzealdea, Lizardi plaza. Bestalde herriko plaza ere bataiatu da: Herriko Plaza izango da. Donostiako Udalak Tellabideri aholkua eskatu zion izen hauek jartzeko baina azken erabakia Herri Kontseiluarena izango da.

### Zenbait hobekuntza eta premien berri

Markesina berriak jarri zituen Udalak baina zenbait lekutan markesinarik gabe jarraitzen dugu: Kamio, sindikatua, Tximistarri... Eskiera egin zaie udal ordezkariari. Bestalde, Lasarmendi bidean (Zerutxoko bihurtunearen gainean) eta Kamiotik Benta Alegre rainoko tartean, egurrezko hesiak jartzea eskatu da. Udalak herritik Iturrietarainoko espaloia egitea onartu du. Azkenik, frontoi ondoko iturria lekuz zaharberritzea eta lekuz aldatzea erabaki da: Lizardin jarriko da seguraski.

### Lehen musika festa Igeldon

Musik@rtea Guneak musika festa bat antolatu zuen maiatzean. Gune hau ofizialki sortu gabe dagoen arren, lehen ekintza egin du eta gehiago etorriko dira aurrerantz. Igeldoko Musika Eskolaren inguruan dabilen jendearen ekimena izan da eta musika eta artea indartu eta uztartu nahi dute. Musik@rtea Gunea gune euskalduna izango da eta Igeldoren berezko nortasuna indartu eta herriko kultur giroa suspetu nahi du. Horretarako herriko taldeekin eta Herri Kontseiluarekin elkarlanean ariko da.



## Herri bideen azterketa bukatuta

Udaberrirako bukatu zuten Kontxi Uriartek eta Antton Olaizolak Herri Kontseiluak agindutako lana: Igeldoko herri bideei buruzko azterketa alegia.

Aipatu azterketa Donostiako Udal Gobernura iritsi da eta Udalbatzak argi berdea laster emango diola aurreikusten da.

Hori gertatu eta gero, Donostiako Udalak bere egingo ditu herri bide hauek guztiak eta hortik aurrera udal inbentarioan agertuko dira.

### **Gehienak egoera onean**

Orain arte ez zegoen inongo agiri ofizialik Igeldoko herri bideen gainean eta egindako lana oso garrantzitsua da bide hauen etorki-


zunerako.

Orohar, eta txostenak dionaren arabera, bide asko egoera onean dago: 23 herri bide ondo zainduta daude. Gainerakoen egoera desberdina da:

zortzi bidetan ibili daitekeen arren, zenbait zatitan sasiak bidea janda dute, erdi itxita daude eta askotan gainera itxiturak aurki daitezke.

Beste hiru bide, Iriarte, Irigoien eta Gurrutxaga-Enea bideak zeharo utzita daude. Arkaitzagan hasi eta herrian bukatzen den Iriarte bidea, eliz bidea zen garai batean, baina gaur egun azken zatia itxita du.

Irigoien bidea ere oso utzia dago, eta Pokopandegi bidean hasi



eta Donostiara joateko asko erabiltzen zen Gurrutxaga-Enea bidea, sasiak hartuta dago.

### **Bi bide galduta**

Ganbo eta Mendigain bideak galdutzat eman dituzte bi azterketa egileek. Ganbo bideak Aristondo, Ganbo eta Zugasti-Eder baserriak zeharkatzen ditu. Galduta egon arren, Ganbotik

aurrera bidearen arrasto nabaria da.

Pilotegi bidean hasi (Sakristauene atzetik) eta Leku Ederreraino zihoan Mendigain izeneko bidea erabat galduta dago. Bide hau garai bateko errepide nagusia zen eta Mendigain, Arburu eta Gure Izarra etxeak zeharkatzen zituen. Hau da beraz, bide guztien egoera.



Igeldoko  
Herri  
Kontseilua